Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2328

AGINDUA, 2009ko apirilaren 8koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan familia arloko programak eta jarduerak egiteko diru-laguntzak 2009ko ekitaldirako arautzen eta deitzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren arloko programak eta jarduerak egiteko laguntza-deialdia 2003. urtetik aurrera egin izan da, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko uztailaren 3an eta 2006ko irailaren 26an hurrenez hurren izandako bileretan onartutako Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen I. eta II. planen barruan.

Bi planen ebaluazioek erakutsi dutenez, laguntza horiek oso eraginkorrak dira bilatzen diren helburuak lortzeko, eta era askotako onurak dakarzkiote gure autonomia erkidegoan bizi diren familien ehuneko handi bati.

Berriki onartutako Familien Sostengu Legearekin (12ko 13/2008 Legea, abenduaren 12koa) guztiz finkatuta geratu da aipatutako Erakunde arteko planen barruan sortu diren familia babesteko neurrien multzoa, eta hori onartzeko lortutako adostasun zabalak agerian uzten du zein den euskal gizarteko gehiengoaren nahia: haren oinarrizko erakunde naturalari, familiari, sostengua ematea.

Batetik, erakunde horren garrantzia eztabaidaezina da: familiek haien egitekoak hobeto garatzen dituzten heinean, haietan hazten diren gizabanakoak osoagoak, ziurragoak eta solidarioagoak izango dira, besteak beste. Bestetik, familia etengabe gizartearen aldaketen eragina nozitzen ari den errealitatea da, eta hor garatzen da, hain zuen ere, elkarteen mugimenduaren eta herritarren partaidetzaren egiteko garrantzitsua, egoera ahulenean dauden familiengana duten gertutasunagatik; horrela, haien landa-lanak aukera ematen die, nolabait, arazoak eta arriskuak azkar detektatzeko eta, ondoren, horiei aurre egiteko estrategiak zehazteko.

Horregatik, familiaren arloan programak eta jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeentzat Agindu honen bidez deitzen eta arautzen diren laguntzak Familien Sostengu Legeko 5.2. artikuluan familiak babesteko, sustatzeko eta laguntzeko aurreikusten diren neurriak diseinatu eta aplikatzeko kooperazio-bideetako bat dira.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2328

ORDEN de 8 de abril 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan y convocan para el ejercicio 2009 las subvenciones para la realización de programas y actividades en el área de familia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La convocatoria de ayudas para la realización de programas y actividades en el área de familia en la Comunidad Autónoma de Euskadi ha venido desarrollándose desde el año 2003 en el marco del I y del II Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias con Hijos e Hijas, aprobados por el Consejo de Gobierno en sus respectivas sesiones de 3 de julio de 2001 y de 26 de septiembre de 2006.

Las evaluaciones de ambos Planes han revelado que estas ayudas son eficaces en la consecución de los fines propuestos y benefician de muy diversas formas a un altísimo porcentaje de familias que viven en nuestra comunidad autónoma.

La reciente Ley 13/2008, de 12 de diciembre, de Apoyo a las Familias es la consolidación plena del conjunto de medias de protección a la familia que han sido creadas en el marco de los mencionados Planes Interinstitucionales, el amplio consenso alcanzado en la aprobación de la misma pone de manifiesto el sentir mayoritario de la sociedad vasca apoyando a la que es, sin duda, su institución natural básica: la familia.

Por un lado, la importancia de esta institución es incontestable: en la medida en que las familias desarrollen mejor sus funciones, los individuos que crecen en ellas serán más plenos, más seguros, más solidarios... Por otro lado, la familia es una realidad continuamente afectada por los cambios sociales y es ahí donde el movimiento asociativo y la participación ciudadana desarrolla una importante labor por su proximidad a las realidades familiares más vulnerables, de alguna manera, su labor de campo les permite identificar con rapidez problemas y riesgos para posteriormente definir las estrategias con las que hacerles frente.

Por ello, las ayudas a las entidades sin ánimo de lucro que realizan programas y actividades en el área de familia que se convocan y regulan en la presente Orden son uno de los cauces de cooperación en el diseño y aplicación de las medidas de protección, promoción y apoyo a las familias previstos por la propia Ley de Apoyo a las Familias, en su artículo 5.2.

Agindu honen oinarria Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen Egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuak, familiei laguntzeko jarduerak gauzatu ditzan, Familia Zuzendaritzari ematen dion gaikuntza zehatzean datza, eta, horregatik, agindu honen bidez arautzen dira familiaren arloko programak eta jarduerak gauzatzeko 2009. urteko ekitaldian Sailak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei emango dizkien laguntzak.

Agindu hau, diru-laguntzak ematekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.12 eta 10.39 artikuluetan, hurrenez hurren, gizarte-laguntza eta komunitate-garapen eta -sustapen arloan aitortutako eskumenen babespean ematen da.

Horri jarraiki, Familiaren Erakundeen Batzordea eta Familiaren Batzorde Iraunkor Sektoriala entzun eta gero, honakoa

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea familiaren arloko programak eta jarduerak gauzatzeko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei 2009ko ekitaldian emango dizkien laguntzak arautzea da.

2. artikulua.– Diruz laguntzeko moduko jardunak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasoko dituzte 2009ko ekitaldian garatzen diren programek eta jarduerek, ondoko arloen barruan:

a) familien bizi-kalitatea hobetzera zuzendurikoak, batez ere egoera oso ahulean daudenena.

b) bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egitea sustatzen duenak.

c) seme-alabak hezi eta zaintzeko bikoteko bi kideen erantzunkidetasuna sustatzen dutenak.

d) beren kasa moldatzen ez diren senitartekoak zaintzeko lanetan bikotekide bien ardura partekatua sustatzera zuzendurikoak.

e) gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunak norberarentzat eta gizartearentzat dakartzan abantailen berri ematera zuzendurikoak.

f) norberaren bizimodua, familia eta lana batera eramaten laguntzeko neurriak martxan jarri beharraz lan-munduko gizarte-eragileak ohartaraztera zuzendurikoak.

g) familia-aniztasuna ezagutu eta errespetatzearen aldekoak.

h) familiak gizartearen ardatz modura eta belaunaldi arteko elkartasun-bide modura duen funtsezko zereginak gizarteari zer-nolako ekarpena dakarkion azpimarratzera zuzendurikoak.

La presente Orden encuentra su fundamento en la concreta habilitación que el Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, otorga a la Dirección de Familia para llevar a cabo actuaciones de fomento de apoyo a las familias, y por ello, regula las ayudas que este Departamento otorgará, durante el ejercicio 2009, a las entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de programas y actividades en el área de familia.

Esta Orden, de carácter subvencional, se dicta al amparo de las competencias que en materia de asistencia social, promoción y desarrollo comunitario se establecen en los artículos 10.12 y 10.39, todos ellos del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

En su virtud, oídas la Comisión Interinstitucional de Familia y la Comisión Permanente Sectorial de Familia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

El objeto de la presente Orden es la regulación de las ayudas que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, otorgará, durante el ejercicio 2009, a las entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de programas y actividades en el área de familia.

Artículo 2.– Actuaciones subvencionables.

Serán objeto de las ayudas previstas en esta Orden los programas y las actividades que se desarrollen durante el ejercicio 2009 en las siguientes áreas:

a) las encaminadas a la mejora en la calidad de vida de las familias, en particular de aquellas que se encuentren en situaciones de especial vulnerabilidad.

b) las dirigidas a la promoción de la conciliación de vida personal, familiar y laboral.

c) las destinadas a promover la corresponsabilidad de ambos miembros de la pareja en la educación y cuidado de los hijos e hijas.

d) las destinadas a promover la corresponsabilidad de ambos miembros de la pareja en el cuidado de personas en situación de dependencia.

e) las orientadas a difundir los beneficios personales y sociales que se derivan de una efectiva igualdad entre mujeres y hombres.

f) las orientadas a la concienciación de los agentes sociales del ámbito laboral sobre la necesidad de la puesta en marcha de medidas dirigidas a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

g) las destinadas a promover el respeto y conocimiento de la diversidad y pluralidad familiar.

h) aquellas cuya finalidad sea resaltar la aportación social de las familias como esencial elemento de vertebración social y de solidaridad intergeneracional.

i) familiaren barruko ardura guztiak familiako kide guztien artean banatu beharra sustatzera zuzendurikoak. Banaketa hori kide bakoitzaren garapen-maila kontuan harturik egin beharko da.

j) indarkeria eta familia-gatazkak murriztera zuzendurikoak.

k) familia-egitura berriei laguntzekoak.

l) Familia Zuzendaritzak interes orokorrekotzat jotzen dituenak, Familien Sostengu Legearen barruan duten garrantzi bereziagatik.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Agindu honetan ezartzen diren laguntzak jaso ahal izango dituzte aurreko artikuluan deskribatutako arloetan programak eta jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean gauzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek, baldin eta administrazio honetako Elkarteen edo Fundazioen Erregistroan inskribatuta badaude edo dagozkien erregistro publikoetan inskribatuta daudela egiaztatzen badute.

4. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Agindu honetan jasotakoa betetzea helburu duten baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik eratorriko dira. Aurrekontu-ekitaldiaren barruan eman beharreko laguntzen guztizkoa ez da izango aipatutako kontsignazioa (edo, aurrekontu-aldaketak onartzen direnean, hori eguneratzearen emaitza) baino handiagoa, indarrean dagoen legearekin bat etorriz.

Aurrekontuan aldaketarik egonez gero, eta baldin eta laguntzen ebazpenak baino lehenagokoak badira, Gizarteratze eta Familia-sailburuordeak aldaketa horien berri eman beharko du, horien gaineko ebazpen bat argitaratuz.

2.– Agindu honetan ezarritakoa betetzeko, Aginduan aurreikusitako diru-laguntzen 2009ko ekitaldiko finantziazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak 2009ko ekitaldirako onartzen dituen abenduaren 29ko 19/2008 Legeko 31241 programako aurrekontu-kredituaren kargura egingo da, eta horren zenbatekoa seiehun eta hogeita hamabi mila bederatziehun eta hirurogeita hamaika (632.971,00) eurokoa izango da.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea: modua eta epea.

1.– Eskabideak Familia Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio, araututako eskabide-orrian eta kasu bakoitzari dagozkion agiriekin batera, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko lurralde ordezkaritzetan edo Familia Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira.

i) el fomento de la asunción de las distintas responsabilidades familiares por parte de todos sus miembros, de acuerdo con su grado de desarrollo personal.

j) las destinadas a reducir la violencia y los conflictos familiares.

k) las encaminadas al apoyo de las nuevas estructuras familiares.

l) aquellas que se consideren de interés general por la Dirección de Familia y así se motive por su especial relevancia en el marco de la Ley de Apoyo a las Familias.

Artículo 3.– Entidades beneficiarias.

Podrán acogerse a las ayudas establecidas en la presente Orden las entidades privadas sin ánimo de lucro que, dentro del territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, realicen programas y actividades encuadrados en las áreas descritas en el artículo anterior y que, además, estén inscritas en el Registro de Asociaciones o de Fundaciones de esta Administración o, en su caso, acrediten su inscripción en los registros públicos correspondientes.

Artículo 4.– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la presente Orden procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

En el supuesto de que existan dichas modificaciones, que se realizarán con carácter previo a la resolución de las ayudas, se dará publicidad a esta circunstancia mediante resolución del Viceconsejero de Inserción Social y Familia.

2.– A los efectos del cumplimiento del objeto de la presente Orden, la financiación para el año 2009 de las subvenciones previstas en la misma, se efectuará con cargo al crédito presupuestario del programa -31241, de la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009, cuyo importe asciende a seiscientos treinta y dos mil novecientos setenta y un (632.971,00) euros.

Artículo 5.– Presentación de solicitudes: Forma y plazo.

1.– Las solicitudes, dirigidas a la Directora de Familia, se presentarán mediante instancia normalizada que se adjunta como anexo de esta Orden, que podrá entregarse, junto con la documentación que corresponda, en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, o bien en la Dirección de Familia.

Edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

2.– Eskabide horiek aurkezteko epea, honako agindu hau indarrean jarri eta hilabetekoa izango da.

3.– Entitate onuradunek baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute eskabidea aurkezten dutenean.

6. artikulua.– Agiriak.

Agindu honetan jasotzen diren laguntzak eskuratu nahi dituzten entitateek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Behar bezala betetako eskabide-orria (agindu honekin eranskin gisa doan eskabide-orria), gutxienez honako datuak jaso beharko dituena:

1) Programaren edo jardueraren deskribapena; helburuak, baliabide pertsonalak eta materialak, garatu beharreko kronograma eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta.

2) Programaren edo jardueraren aukeraren edo egokitasunaren justifikazio arrazoitua.

3) Programaren edo jardueraren esparru geografikoa.

4) Programaren edo jardueraren hartzaileak.

5) Programaren edo jardueraren diru-sarreren eta gastuen aurrekontua.

6) Erakundearen ibilbidea.

7) Erakundearen jardunen esparru geografikoa.

8) Zinpeko aitorpena:

– erakunde eskatzailearen ordezkariarena, erakunde eskatzailea beste finantzazio-iturri batzuk dituen egiaztatzekoa, iturriak eta horien zenbatekoa zehazten dituena eta eskatu diren eta erabakitzeko zain dauden laguntza-eskabideak aipatzen dituena.

– erakunde eskatzailearen ordezkariarena, ondokoa egiaztatzekoa: emandako laguntzak eta diru-laguntzak direla-eta erakunde eskatzaileak itzultze- edo zehapen-prozedurarik irekita daukan, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek irekita eta izapidetze-fasean.

– erakunde eskatzailearena, erakunde eskatzaileak diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko gaitasuna galtzeko administrazio- edo zigor-arloko zehapena jaso ez duela eta legez horretarako gaikuntza galdu ez duela egiaztatzekoa.

– erakunde eskatzailearen ordezkariaren zinpeko aitorpena, erakundea sexua dela-eta diskriminatzeagatik administrazio- edo zigor-arloko zigorpean ez dagoela

En todo caso, será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El plazo de presentación de dichas solicitudes será de un mes a partir de la entrada en vigor de la presente Orden.

3.– El cumplimiento de los requisitos de las entidades beneficiarias deberá acreditarse en el momento de la presentación de la solicitud.

Artículo 6.– Documentación.

Las entidades solicitantes que opten a las subvenciones de la presente Orden deberán presentar la siguiente documentación:

a) Impreso de solicitud (instancia normalizada que se adjunta como anexo de esta Orden) debidamente cumplimentado, en el que necesariamente deberán constar los siguientes datos:

1) Descripción del programa o actividad de que se trate, con expresión de sus objetivos, medios personales y materiales, cronograma a desarrollar e indicadores de evaluación.

2) Justificación razonada de la oportunidad o idoneidad del programa o actividad.

3) Ámbito geográfico del programa o actividad.

4) Personas destinatarias.

5) Presupuesto de ingresos y gastos del programa o actividad.

6) Trayectoria de la entidad.

7) Ámbito geográfico de las actuaciones de la entidad.

8) Declaración jurada:

– del representante de la Entidad solicitante donde certifique si la entidad solicitante es perceptora de otras fuentes de financiación, especificando cúales son, cúal es su importe

– del representante de la Entidad solicitante donde certifique si la entidad solicitante tiene abierto algún procedimientos de reintegro o sancionadores en tramitación, incoados por la Administración general de la Comunidad Autónoma y sus Organismos autónomos, a la entidad solicitante, en el marco de ayudas o subvenciones concedidas.

– del representante de la Entidad solicitante donde certifique que la entidad no está sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, y que no se halla inhabilitada legalmente para ello.

– del representante de la Entidad solicitante donde asegure que la entidad no está sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por

eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortuta ez dagoela adierazten duena.

b) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia. Aurreko ekitaldiko deialdi berean diru-laguntza jaso dutenek ez dute agiri hori aurkeztu beharko.

c) Zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duten egiaztagiri eguneratuak, gehienez, eskabidearen data baino hiru hilabete aurretik emandakoak; bata Foru Ogasunarena, eta bestea, hala dagokionean, Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzarena, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei buruzkoa. Nolanahi ere, diru-laguntza emateko, egiaztatzeko eta ordaintzeko fase guztietan gai horri buruz eskatzen zaizkion egiaztagiri guztiak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

d) Erakunde eskatzailearen 2008ko balantze orokorra.

e) Erakunde eskatzailea Administrazio honetako Elkarteen edo Fundazioen Erregistroan edo dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoela adierazten duen egiaztagiria.

7. artikulua.– Eskabidearen hutsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskabideak oso-osorik bete ezean, edo diruz lagun daitekeen egoera bakoitzeko azaldutako agiriekin batera aurkeztu ezean, hamar egunetan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio interesdunari. Hori egin ezean eskabideari uko egiten diola ulertuko dugu. Administrazioak, ordea, espresuki eman beharko du eskabideari buruzko ebazpena eta horren berri eman azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1. eta 42.1. artikuluetan ezarritakoaren arabera (Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

8. artikulua.– Esleitzeko irizpideak eta horien ponderazioa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu eta emateko, honako gehienezko puntuazio-baremoa hartuko da kontuan:

1.– Erakunde eskatzaileari dagokionez:

a) Erakundearen jardueraren esparru geografikoa, Lurralde Historiko bat baino gehiagotan proiekzioa dutenak bereziki baloratuta: 10 puntu gehienez.

b) Erakundearen ibilbidea (jarraitasuna, egonkortasuna eta kaudimena): 5 puntu gehienez.

razón de sexo, ni sancionada con la prohibición de concurrir a convocatorias de subvenciones o ayudas en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

b) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal. En el supuesto de que se hubiera percibido subvención en la misma convocatoria del ejercicio anterior, no será necesaria la aportación de este documento.

c) Certificados actualizados, emitidos con no más de tres meses de antelación a la fecha de la solicitud, que acrediten, respectivamente, estar al corriente de sus obligaciones tributarias, expedido por la Hacienda Foral correspondiente, y de cumplimiento, en su caso, de las obligaciones con la Seguridad Social, emitido por la Tesorería Territorial. No obstante, el/la beneficiario/a está obligado/a a presentar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante todas las fases del procedimiento de concesión, justificación y liquidación de la subvención.

d) Balance general de la entidad solicitante correspondiente al ejercicio 2008.

e) Certificado de la inscripción de la entidad solicitante en el Registro de Asociaciones o Fundaciones de esta Administración o en el correspondiente registro público.

Artículo 7.– Subsanación de los defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la entidad interesada para que, en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 8.– Criterios de adjudicación y ponderación.

Los criterios para la concesión y fijación de la cuantía de la subvención serán los que a continuación se señalan, de acuerdo con el siguiente baremo de puntuaciones máximas:

1.– Relacionados con la entidad solicitante:

a) Ámbito geográfico de las actuaciones de la entidad, valorándose especialmente aquellos que tengan proyección en más de un Territorio Histórico, hasta 10 puntos.

b) Trayectoria de la entidad, entendida como su continuidad, estabilidad y solvencia, hasta 5 puntos.

2.– Proposatutako programa edo jarduerei dagokienez:

a) Proposatutako programa edo jardueraren esparru geografikoa, proiekzioa Lurralde Historiko bat baino gehiagotan dutenak bereziki baloratuta: 10 puntu gehienez.

b) Aurkeztutako proiektuaren xede den jarduera agindu honetako 2. artikuluan aurreikusten diren jarduera-esparruetara eta dagokion sektorean ikusitako eskarira egokituta egotea: 15 puntu gehienez.

c) Proposatutako programa edo jardueraren kalitatemaila, bereziki helburuak, giza baliabideak eta baliabide materialak, garatu beharreko kronograma eta ebaluazioadierazleak baloratuta: 35 puntu gehienez.

d) Programa edo jardueraren izaera berritzailea: 10 puntu gehienez.

e) Genero-ikuspegia barne hartzea: 5 puntu gehienez.

f) Beste Administrazio edota erakunde publiko edo pribatuen parte-hartzea programa edo jardueraren finantzaketan: 10 puntu gehienez.

9. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsoak eta publizitate-prozedura.

1.– Familia Zuzendaritza izango da Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira. Horretarako, Agindu honetako 8. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuz ebaluatuko dira eskabideak, eta gutxienez 40 puntu lortu beharko dituzte diru-laguntzak jaso ahal izateko.

Ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa erabakitzeko, proportzionaltasunaren irizpidea erabiliko da; horrela, balioespen-fasean lortzen den puntuazioaren arabera banatuko da diru-kopurua, ezartzen den muga-ehunekoa errespetatuz eta eskatutakoa gainditu gabe. Balorazioa Familia zuzendariak izendatutako kide anitzeko organo batek egingo du, eta horren ondoren, ebazpen proposamena ere egingo du.

Organo hori honako hauek osatuko dute:

– Presidentea: Familia zuzendaria.

– Kideak: Maila teknikoa duten hiru pertsona, Familia zuzendariak zuzendaritza horretako langileen artean aukeratuak. Horietako batek idazkari gisa jardungo du

.

3.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak Familia zuzendariak espresuki emango duen ebazpen bakar baten bidez eman edo ukatuko dira, eta ebazpen hori arrazoitua izango da.

4.– Diru-laguntzak emateko ebazpenean agindu honetako 14. artikuluan laguntza horiek ezarritako

2.– En relación con los programas o actividades propuestos:

a) El ámbito geográfico del programa o actividad propuesto, valorándose especialmente aquellos que tengan proyección en más de un Territorio Histórico, hasta 10 puntos.

b) Adecuación de la actividad objeto del proyecto presentado a las áreas de actuación previstas en el artículo 2 de esta Orden y a la demanda detectada en el sector correspondiente, hasta 15 puntos.

c) Nivel de calidad del programa o actividad propuesto, valorándose especialmente sus objetivos, medios personales y materiales, cronograma a desarrollar e indicadores de evaluación, hasta 35 puntos.

d) Carácter innovador del programa o actividad, hasta 10 puntos.

e) Inclusión de la perspectiva de género, hasta 5 puntos.

f) Participación de otras Administraciones o entidades públicas o privadas en la financiación del programa o actividad, hasta 10 puntos.

Artículo 9.– Gestión, resolución, recursos y procedimiento de publicidad.

1.– El órgano competente para la gestión de las subvenciones reguladas en la presente Orden será la Dirección de Familia.

2.– El procedimiento para su concesión será el de concurso y, a tal efecto, en aplicación de los criterios de valoración establecidos en el artículo 8 de esta Orden, se procederá a la evaluación de las correspondientes solicitudes, de modo que únicamente podrán acceder a las ayudas aquéllas que alcancen la puntuación mínima de 40 puntos.

Para la determinación de la cuantía de las subvenciones que se concedan se utilizará el criterio de proporcionalidad, de suerte que la dotación económica se distribuirá entre todas ellas en proporción a la puntuación obtenida en la fase de valoración, (respetando el límite porcentual establecido) sin rebasar la cuantía solicitada. Esta valoración se realizará por un órgano colegiado designado por el Directora de Familia que formulará propuesta de resolución.

La composición de este órgano será la siguiente:

– Presidente: Directora de Familia.

– Vocales: Tres personas con nivel técnico designadas por la Directora de Familia de entre el personal de dicha Dirección, una de las cuales actuará como secretario o secretaria.

3.– La concesión y denegación de las subvenciones previstas en la presente Orden será motivada, y se efectuará mediante Resolución única y expresa de la Directora de Familia.

4.– La Resolución de concesión de las subvenciones indicará las obligaciones de las mismas, previstas en el

betebeharrak zein diren adieraziko da, eta diru-laguntzen erabilera fiskalizatzeko dagozkien egitekoak betez Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen erabilera ikuskatzeko eskatu diezazkieketen argibideak ematera behartuta daudela xedatuko da berariaz.

5.– Publizitatearen printzipioa betetzeko, Familia zuzendariaren ebazpen baten bidez honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, dekretu honen babesean diru-laguntza zein entitatek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten eta, bestetik, zein entitateri emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, diru-laguntzak emateko ebazpena berariaz eta banan-banan ere jakinarazi ahal izango da aurkeztutako eskabideei buruz.

6.– Aipatutako ebazpenak ez du administrazio-bidea amaitzen, eta gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute entitate interesdunek horren aurka, Gizarteratze sailburuordearen aurrean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

10. artikulua.– Isiltasunagatik ukatzea.

Agindu hau indarrean hasi eta hiru hilabete igaro ondoren ez bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, eskabideak ukatutzat joko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako; hala ere, Administrazioak berariazko ebazpena eman behar du.

11. artikulua.– Zenbatekoa eta ordaintzeko era.

1.– Aurkezten den programa edo jarduera bakoitzerako onartzen den aurrekontu osoaren % 100era arte finantza dezake Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak.

2.– Ordainketa zatika egingo da: % 75 diru-laguntza onartzen den unean, eta gainerako % 25 egindako gastua egiaztatzen duten agiri originalak —edo, salbuespen gisa, horien kopia konpultsatua—, agindu honetako 15.6.a) artikuluan aipatzen den memoria eta erakundearen 2009ko balantze orokorra aurkeztu ondoren. Horretarako bi hilabeteko epea izango da, jarduera amaitzen denetik hasita.

12. artikulua.– Laguntzaren mugak.

1.– Zeharkako zergak ez dira inoiz diru-laguntza jasotzeko moduko gastutzat hartuko, berreskuratu edo konpentsatu baldin badaitezke.

2.– Irakasleen, hizlarien eta txostengileen ordainsari profesionalak edo erakunde onuraduneko Zuzendaritzako kideek edo nominako langileek emandako zerbitzuak ez dira diru-laguntza jasotzeko moduko gastutzat hartuko.

artículo 14 de esta Orden, y, específicamente, la obligación de facilitar cuanta información les sea requerida por la Oficina de Control Económico y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

5.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de la Resolución dictada sobre las solicitudes de subvención presentadas, mediante Resolución de la Directora de Familia se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de las Entidades que hayan resultado beneficiarias de las subvenciones concedidas al amparo de la presente disposición, con expresión de las cuantías percibidas, así como la de aquéllas respecto de las que se haya procedido a modificar la subvención concedida.

6.– Dicha Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma las Entidades interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Inserción Social y de Familia, conforme a lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 10.– Desestimación por silencio.

Transcurridos tres meses desde la entrada en vigor de la presente Orden sin que se haya dictado y notificado resolución expresa, las solicitudes se entenderán desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

Artículo 11.– Cuantía y forma de pago.

1.– El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social podrá financiar hasta el 100% del presupuesto que resulte aprobado de cada programa o actividad que se presente.

2.– El pago será fraccionado, abonándose el 75% en el momento de la concesión y el restante 25% previa presentación de los documentos originales justificativos del gasto realizado o, excepcionalmente, copia compulsada de los mismos, la memoria a que se hace referencia en el artículo 15.6.a) de esta Orden y balance general de la entidad correspondiente al año 2009, en el plazo de dos meses a partir de la finalización de la actividad

Artículo 12.– Límites de la concesión.

1.– En ningún caso se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean suspectibles de recuperación o compensación.

2.– No serán subvencionables los honorarios profesionales de profesores/as, conferenciantes, ponentes o cualesquiera otros servicios prestados por miembros de la directiva o personal en nómina de la entidad beneficiaria.

13. artikulua.– Laguntza hauen eta beste batzuen bateraezintasuna.

